

# "Pentsio- eta banakako aurreikuspen-planetako kanpoko intsuldaketengatiko hobariaren" baldintza orokorrak

## 1. "HOBARIAREN" HELBURUA.

"HOBARIA" da 4. epigrafean aurreikusitako eran kantitate bat jasotzeko eskubidea, BBVAk merkaturatzen dituen hurrengo pentsio planetara edo Norpensión, EPSV Individual funtsean txertatuta izanik BBVAk administratzen dituen hurrengo gizarte aurreikuspeneko planetara (aurrerantzean, Planak) intsuldatutako zenbatekoen 3. epigrafean zehazten dira horiek- ehuneko (%) jakin baten ken dagokion atxikipen fiskalaren baliokidea dena:

PENSIO-PLANAK	GIZARTE AURREIKUSPENEN BANAKAKO PLANAK (*)
<ul style="list-style-type: none"> <li>- BBVA PLAN RENTA FIJA</li> <li>- BBVA PLAN 30</li> <li>- BBVA PLAN 40</li> <li>- BBVA PLAN 50</li> <li>- BBVA PLAN INDIVIDUAL</li> <li>- BBVA MULTIACTIVO MODERADO</li> <li>- BBVA MULTIACTIVO DECIDIDO</li> <li>- BBVA MULTIACTIVO CONSERVADOR</li> <li>- BBVA PLAN GLOBAL DESARROLLO SOSTENIBLE ISR</li> <li>- BBVA PLAN RENTA VARIABLE IBEX</li> <li>- BBVA PLAN TELECOMUNICACIONES</li> <li>- BBVA RENTA VARIABLE EUROPA</li> <li>- BBVA RENTA FIJA INTERNAC. FLEXIBLE</li> <li>- BBVA PLAN JUBILACIÓN SOSTENIBLE 2025</li> <li>- BBVA PLAN JUBILACION SOSTENIBLE 2030</li> <li>- BBVA PLAN JUBILACION SOSTENIBLE 2040</li> <li>- BBVA PLAN CONSOLIDACIÓN 85</li> <li>- BBVA PLAN SOSTENIBLE MODERADO</li> <li>- BBVA PLAN USA DESARROLLO SOSTENIBLE ISR</li> <li>- BBVA PLAN MEJORES IDEAS</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- NORPENSION RENTA FIJA</li> <li>- NORPENSION II</li> <li>- NORPENSION PRUDENTE</li> <li>- NORPENSION EQUILIBRADO</li> <li>- NORPENSION DINÁMICO</li> <li>- NORPENSION DESARROLLO SOSTENIBLE ISR</li> <li>- NORPENSION RENTA VARIABLE IBEX</li> <li>- NORPENSION JUBILACIÓN SOSTENIBLE 2025</li> <li>- NORPENSION JUBILACIÓN SOSTENIBLE 2030</li> <li>- NORPENSION JUBILACIÓN SOSTENIBLE 2035</li> <li>- NORPENSÓN MEJORES IDEAS</li> </ul> <p>(*) EAEko egoiliarrentzat soilik.</p>

## 2. "HOBARIAN" HOBARITUTAKO INTSULDAKETAK.

HOBARIA partaide/bazkide hauei bakarrik aplikatuko zaie:

**BBVA Taldeko erakundeek kudeatzen/administratzen edota merkaturatzen ez dituzten (kanpoko intsuldaketak) PENSIO ETA GIZARTE AURREIKUSPENEN BANAKAKO PLANAK, 3. epigrafean ("Hobariaren" baldintzak) zehazten diren zenbatekoetan, 2023ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean (bi egunak barne) intsuldatzea eskatzen dutenak.**

### 3. "HOBARIAREN" BALDINTZAK.

HOBARIA **2023ko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean, bi egunak barne** eskatu eta aldi horretan edo hori amaitu ondorengo hurrengo hilabetean jasotzen diren aurreko epigrafean zehaztutako intsuldaketei aplikatuko zaiei.

Hobariaren iraunaldian indarreko kanpainan zehazten diren Planen mobilizazioaren (kanpora edo barnera, kanpainatik kanpo) edota prestazioaren edo eskubide kontsolidatuaren/ekonomikoen kobaketaren kasuan, hobarirako den eskubidearen zenbatekoa minoratuko da.

Hobariaren ehunekoa (%), hain zuzen, kanpoko intsuldaketaekin jasotako honako eskubide kontsolidatu/ekonomiko hauen arabera ezartzen da..

Zenbatetik	Zenbateraino	Hobaria (%)	Hilabete kopurua
0,00	8.000,00	1,00	60
8.000,01	25.000,00	2,00	60
25.000,01	99.999.999,99	4,00	72
-----	-----	-----	-----
-----	-----	-----	-----

### 4. "HOBARIAREN" ABONUA.

"HOBARIA" partaideak/bazkideak **2023ko martxoaren 31n** BBVA'n duen lotutako kontuan abonatu da, dagokion atxikipen fiskala egin ondoren.

Abonua xehetasun hauei jarraituz egingo da:

Intsuldaketa kanpaina indarrean den aldiaren eskatu bada eta likidazioa hori amaitu ondorengo hilabetean egiten bada, hobaria hilabete horretan abonatu da.

"HOBARIA" partaideak/bazkideak hori jasotzeko eskubidea sortu duen pentsio edo gizarte aurreikuspeneko planean jarriko da automatikoki, eta, sustapen honetara atxikitzean, BBVAri baimena ematen zaio partaidetza horiek harpidetzeko (berritzulketaren modalitatea harpidetu izanez gero).

Partaideak/Bazkideak jarrita baldin badu atxikitako pentsio edo gizarte aurreikuspeneko planerako urteko ekarpenaren gehieneko finantza-muga, hobaria ez da Planera gehituko, partaidearen/bazkidearen kontu korrontean jarriko da.

### 5. HOBARIAREN ITZULKETA.

Partaideak/Bazkideak behartuta dago "HOBARIA" ordaintzen den datatik aurrera hori sortu duten eskubide kontsolidatuak/ekonomikoak jasotako hobariaren %koaren arabera adierazten diren ondoz ondoko hilabeteetan mantentzera, 3. atalean ("HOBARIAREN" BALDINTZAK) zehazten denari jarraituz.

Partaideak/Bazkideak hauek ere bete behar ditu epe horretan:

1. Partaideak/Bazkideak Planean HOBARIARI lotuta dituen eskubide kontsolidatuak/ekonomikoak ezin dira intsuldatu, ez osorik, ez partzialki, BBVA Taldekoak ez diren erakundeek sustatutako pentsio plan, banako aurreikuspen plan edo bermatutako aurreikuspen planetara.
2. Partaideak/Bazkideak PLANEAN dituen eskubide kontsolidatuak ezin dira intsuldatu, ez osorik, ez partzialki, BBVAk sustatutako baina hobarirako une horretan indarrean den kanpainan sartzen ez diren beste edozein pentsio plan, banako aurreikuspen plan edo bermatutako aurreikuspen planetara.

Baldintza hori bete ezean, jasotako HOBARIA itzuli beharko du, arau hauei jarraikiz:

1. Abonuaren ondorengo iraunaldiko epean partaideak/bazkideak intsuldatu egiten baditu, osorik edo partzialki, Planaren HOBARIARI lotutako eskubide kontsolidatuak/ekonomikoak BBVA Taldekoak ez diren entitateen beste pentsio plan, banakako aurreikuspen plan edo bermatutako aurreikuspen plan batera, HOBARIA itzuli egin beharko du, hobariari loturik intsuldatu den partaidetza kopuruari dagokion zati proportzionalan, intsuldaketa burutu zen datako likidazio balioarekin, eta hobia emateko intsuldatutako partaidetzek Planean izandako iraunaldiaren zati proportzionalan.
2. Abonuaren ondorengo iraunaldi epean partaideak/bazkideak HOBARIARI lotutako eskubide kontsolidatuen intsuldaketaren bat, osorik edo partzialki, egiten badu BBVAk sustatu, merkaturatu edo administratutako baina une horretan indarrean den -halakorik baldin badago- kanpainara atxikitako Planekoa ez den beste edozein pentsio edo gizarte aurreikuspen plan sustatura, itzuli egin beharko du jasotako hobia, hobariari loturiko intsuldaketaren partaidetza kopuruari dagokion zati proportzionalan, intsuldaketa burutu zen datako likidazio balioarekin, eta hobia emateko intsuldatutako partaidetzek Planean izandako iraunaldiaren zati proportzionalan.
3. Epe horretan zehar partaideak/bazkideak kanpaina honetako HOBARIARI lotutako eskubide kontsolidatuak/ekonomikoak diru bihurtzen baditu, osorik edo partzialki, Planen erregelamenduetan aurreikusitako kontingentzia edo salbuespeneko likidazio kasuengatik, partaideak/bazkideak kanpaina honetako HOBARIA itzuli egin beharko du, diru bihurtutako partaidetzen kopuruari dagokion zati proportzionalan, ekarpena egin zen datako likidazio balioa aintzat hartuta, eta partaideak/bazkideak PLANEAN daraman denboraren arabera, salbu eta prestazioa aldizkako errenta gisa ematen bada; halakoetan, ez da berritzulketarik egingo.

Partaideak/Bazkideak baimen ezeztazina ematen dio BBVAri eskudiruzko gordailuak aplikatzeko, baita BBVAren gordailututa egon daitezkeen era guztietako kreditu eskubideak, merkataritzako efektuak edo balore tituluak egiteko ere, haien zenbatekoa erabilita itzul dadin HOBARIA, itzulketara heltzen den zenbatekoraino.

Gainera, aurreko paragrafoan azaldutakoaren arabera itzultzea posible ez bada, partaideak/bazkideak HOBARIA itzultzeko konpromisoa hartuko du, izaera ezeztazinarekin, unean Planetik jasoa duen zenbatekoan.

## 6. FISKALITATEA.

Hobia ordaintzerakoan edo itzultzerakoan indarrean dagoen fiskalitatea aplikatuko da. Gaur-gaurkoz, indarreko legeariaren eta antzeko edo gisako egoerei buruzko galderei erantzunez DZOk adierazitako irizpideei jarraituz, hau hartzen da kontuan:

- Atxikipen fiskalera lotutako kapital higigarriaren errendimendu gisa hartzen da hobia. Aurrezkiaren likidazio oinarrian integratuko da; hark indarreko eskalako dagokion tipoan ordaintzen ditu zergak, hartzailearen zerga egoitza zer lurraldetan dagoen.
- Aurreko zenbakian aurreikusitako kasuan, hobia itzuliz gero, kapital higigarriaren etekin negatibotzat hartuko da, eta hori jasotzen duenaren bizileku fiskalaren araudian ezarritako indarreko konpentsazio-arauak aplikatuko dira.

## 7. ATXIKIPEN-BALDINTZEN BERARIAZKO ONARPENA.

I. Partaideak/Bazkideak adierazten du baldintza hauetako zehaztapen guztiak irakurri eta ulertu dituela, eta berariaz onartzen dituela.

II. Orri honetan sinatzerakoan, edo baimen telematikoaren bidez, partaideak/bazkideak adostasuna eta onarpema ematen die dokumentu honetako baldintza guztiei, bertan ezartzen diren zehaztapen eta erantzukizunekin, eta kontratuaren ale bat jasotzen du ekintza honetan. Eta hori frogatzeko eta hitzartutakoa betetzeko, bi aletan sinatzen du edo baimena ematen du telematikoki.